20 04

ISKULINEKO TRIKUHARRIA

Trikuharriak historiaurreko monumentu megalitikoak dira. Harrizko lauza horizontal handi batek osatzen ditu, lurrean bertikalki sartutako hainbat harritan eutsita, eta era horretan ehorzketa ganbera bat osatzen dute, oro har, tumulu izeneko lur eta harri mendixka batek inguratuta eta estalita.

Iskulineko trikuharria Jaizkibel mendian kokatuta dago (Hondarribia, Gipuzkoa), GI-3440 errepidearen hegoaldean.

Trikuharri honek (Neolitikoa/Brontze aroa) 9 m diametroko eta metro 1 altuerako tumulua dauka eta horrek 3 m diametrodun eta 0,80 m sakoneradun kraterra du. Haren barruan tamaina txikiko hainbat bloke nahastuta eta 0,90 x 0,60 x 0,13 metroko lauza bat aurkitzen dira, ekialdeko ertzaren gainean ezarrita.

Egituraren eraikuntza erabilitako materialak lurraldeko hareharriak dira.

Gehiago jakiteko: Carta arqueológica de Gipuzkoa. I megalitos. - Sociedad de Ciencias Aranzadi. Suplementos de Munibe, n. 7 y 15.



Iskulineko trikuharriko aztarnak. J.M. de Barandiaranek aurkitu zuen 1935ean eta bere deskripzioaren arabera, 16 metro diametroko tumulu bat zeukan eta ganberak hiru lauza zituen. Oso hondatuta dago zenbait denboraz ehiza postu gisa erabili izan zelako.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 593574 m // Y: 4800359 m // Z: 433 m. Iskulineko trikuharria, . 9 metro diametro inguruko eta metro bat altuerako tumulu bat dauka. Erdialdean 3 metro diametroko eta metro bat inguruko sakonerako krater bat dauka, hainbat blokerekin. J.M. Barandianek 1935ean aurkitu ondoren, emandako deskripzioaren arabera, 16 metro diametrodun tumulua eta hiru lauzadun kamera zeuzkan. Oso hondatuta dago zenbat denboraz ehiza postu gisa erabili izan zelako.